

ARRASATE **Bizirik!**

ARRASATEKO MERKATARITZA ETA ZERBITZUEN ALDIZKARIA • 09. zenbakia • 2010eko abendua



04 Bidegorria

Herriaren arnasgunea

06 **Protagonista**
Vanessa Sanchez

08 **Mercado municipal**
Renovarse o morir

12 **Arrasateko historia**
Erabakigune artistikoa



BOUTIQUE TROKO Erdikokale, 14 ARRASATE

www.ibaiarte.com

04 Bidegorria Herriaren arnasgunea



06 Protagonista Vanessa Sanchez



07 Elkarteak Besaide mendi elkarteak



08 Mercado municipal Renovarse o morir



10 Gurea ezagutzen Taloa



11 Motzean • Breves



12 Arrasateko historia Erabakigune artistikoa



14 Udaletik Desde el Ayuntamiento



Argitaratzailea: Ibai-Arte
175 p.k. • 20500 Arrasate (Gipuzkoa)
Tel.: 943 79 30 90 • www.ibaiarte.com

Egilea: Arteman komunikazioa
Argazkiak: Arteman komunikazioa / Josetxo Aranzabal
Ale kopurua: 9.000
Lege gordailua: SS-1726-2008

Urte berri baten atarian

A las puertas de un año nuevo



Gabino Yarza / Ibai-Arteko presidentea

Eskuarte duzu Arrasate Bizirik aldizkariaren 9. alea, 2010. urteko azken alea alegia, beste behin ere edukiz bete datorrena. 2010. urte garrantzitsua izan da merkataritza eta zerbitzu sektorearentzat, urte gogorra izan arren, azken hamabi hilabeteotako balorazio baikorra egiten baitu Ibai-Arte. Gure balorazio baikorra burututako ekintzen kopuru eta garrantziari dagokie, baita hauek izan duten harrerari ere. Ibai-Arte-rik krisiari inoiz baino ekimen, promozio eta ekintza gehiago martxan jarri, aurre

Kalean presente egonez eta herriaren garapenari gure ekarpena eginez

egin diogu.

Urte amaitzeko, guk ere zuokin batera ospatuko ditugu Arrasaten hain garrantzitsuak diren Santamasak eta Gabonak. Horretarako, kaleak Gabonetako argiekin apaindu ditugu, loteria banatuko dugu, Santamasetan egundoko otzara zozketatuko dugu eta Ibai-Arte txartelarekin ustekabeko deskontuak aplikatzeaz gain, 50 otzaren zozketa egingo dugu hilabete osoan zehar.

Datorren urteari begira, egoerak hobera egingo duenaren itxaropenarekin lanean jarraituko dugu, ahal dugun neurrian, Arrasateko eguneroko bizitza atseginagoa egiten eta gure bezero eta herritarrei bizitza errazten, kalean presente egonez eta herriaren garapenari gure ekarpena eginez.

Zorionak eta urte berri on denoi!

Te encuentras ante el último número de la revista Arrasate Bizirik de 2010. Este año ha sido importante para el sector del comercio y servicios, ya que a pesar de que haya sido duro, desde Ibai-Arte hacemos una valoración positiva del año. Se debe al volumen e importancia de las acciones desarrolladas y por la acogida que han tenido las mismas. Desde Ibai-Arte, hemos afrontado la crisis llevando a cabo más iniciativas, promociones y acciones que nunca y estando presente en la vida del municipio.

Para finalizar el año, queremos celebrar junto a vosotros tanto la fiesta de Santamasak como las Navidades. Para ello, hemos adornado las calles de Arrasate con luces de navidad, repartiremos lotería, sortearemos una gran cesta de

Estando presentes en la calle y aportando nuestro grano de arena para el desarrollo del pueblo

navidad en Santamasak y con la tarjeta Ibai-Arte aplicaremos descuentos sorpresa en las compras realizadas y sortearemos 50 cestas de navidad. Porque a todos nos gusta recibir y dar regalos en estas fechas.

De cara a 2011, trabajaremos con la esperanza de mejorar la situación, intentando hacer más agradable el día a día y facilitando la vida de nuestros clientes y conciudadanos en la medida que podamos, estando presentes en la calle y aportando nuestro grano de arena para el desarrollo del pueblo.

¡Felicidades y prospero año nuevo a todos!





BIDEGORRIA

Herriaren arnasmunea

Badira urte batzuk udalerrri guztia alderik alde zeharkatzen duen Gernika Oinezkoen Zumardia bukatu zutela; eta azken urteotan bidegorri tramu asko egin dituzte Arrasaten. Autoetatik urrun, Aretxabaletara, Elorregira eta Garagartzara joan gaitezke lasai asko. Aukera osasuntsu eta jasangarrien alde egin daiteke.

Askotan esan digute ibiltzea eta paseatzea oso osasuntsua dela. Hain zuzen ere, hain lanpetuta eta denbora gutxiarekin bizi garen garai honetan utopia da kirola egiteko tarte zabala hartuko dugula pentsatzea. Horregatik, aukera proposa da herrian bertan dagoen bidegorri tramu bat hartu eta bertan gora eta behera ibiltzea. Horrez gain, garraioa eta mugikortasuna beste modu baten aztertzen eta birplanteatzen gabiltzan honetan, egokia da bidegorria horretarako erabiltzea; izan ere, herri guztia zeharkatzen du.

Zer eskaintzen diote bidegorriek herriari eta herritarrei? Zeintzuk dira gehiago nabarmendu beharko genituzkeen bidegorrien arloak? Abiapuntu modura Europako herrialde askoren joerak aztertu beharko genituzke. European bidegorrien aldeko apustua aspaldi egin zuten, eta horien artean esanguratsuena da Holanda. Herberehetako herritarrek bizikletan eta oinez zeharkatzen dizute hiriak eta herriak, eta horrek bizitza dakar, bizitza kaleetan, merkatarientzat eta harreman ororentzat. Izan ere, bizitza herritarrek ematen diote hiriari, eta bidegorrien apustua ez litzateke

Bidegorriak kirolarekin, aisialdiarekin eta bizitza aktiboarekin lotuta daude

mugatu beharko periferiara, herri barrutik ere egin beharko litzateke bidegorrien sarea. Ez bakarrik bizikletan dabiltzanendako, baita oinez herrian mugitzeko ohitura dutenentzat ere. Eta arlo horretan, Arrasaten, azken urteotan zenbait kaleren peatonalizazioa burutu da eta bidegorriak ere estreinatu dira.

Bidegorriak goi mailako kirolarekin, aisialdiarekin, herriaren kulturarekin, osasunarekin, hirugarren adinarekin, gazteekin, bizitza aktiboarekin eta beste zenbait kontzeptu interesgarriekin lotuta daude. Goi mailako kirola egiten dutenek lan saioak egin ditzakete bertan, aisialdia gogoko dutenek lasai paseatzeko lekua dute, kalean bizitzeko kultura herritarrarekin ere badu zerikusia bidegorriak, hirugarren

HERRITARREN AHOTIK

Erabiltzen duzu bidegorria?



Carmen Castilla

Lo utilizamos mucho, todos los días. Para ir a la calle a hacer compras utilizo más el ascensor, pero para ir a andar voy por el paseo hasta donde llegue. Empiezo en Altamira y suelo ir hasta Eroski y de allí muchas veces hasta el paseo marítimo. Aunque llueva, suelo ir, me gusta mucho. Esto es formidable, es de lo mejor que han hecho. El entorno y todo está muy bien. Estoy muy agradecida.



Aitzol Iparragirre

Umeekin paseatzeko erabiltzen dut batzutan. Tramu txikiak ibiltzen ditut, baina batzutan Zigarrola aldera joaten naiz. Autorik gabe ibiltzeko oso ondo dago, Zigarrolaruntz eta baita Udala aldera joateko. Arrasatek halako leku gutxi dauzka. Jende nagusia, umeekin edo kirola egiteko jantzita ikusten dut paseoan. Zerbait eskatzekotan, iturri bat jarriko nuke.



Antonia Torres

Lo utilizo mucho para ir desde Aldaigain al centro. Sobre todo suelo ver gente mayor andando por el bidegorri. Es una maravilla: lo utilizo siempre que puedo, sea verano u invierno. Es muy apropiado para hacer deporte, por ejemplo desde Monterron hasta el polideportivo. De mejorar algo, pondría más luz, arreglaría algunas barandillas y colocaría más bancos.



Mirian Gredilla

Lo utilizo para hacer compras o practicar un poco de deporte. Si tengo tiempo libre, me suelo ir de paseo. Lo utiliza un montón de gente: jóvenes, mayores, gente paseando al perro, deportistas... vale para todos y está muy bien. El ascensor también está muy bien, pero a éste le falta estar cubierto. Tener un paseo de punta a punta del pueblo es un lujo. Yo suelo ir muchas veces hasta Garagatza.

Azken urteotan oinezkoen aldeko azpiegitura nabarmen hobetu da herrian

adinekoek osasuna lantzeko eta hobetzeko erabiltzen dute eta gazteek ere elkar harremanak bidegorri horietan izaten dituzte. Filosofía bat bada bidegorria eta gehiago bultzatu beharko litzateke gure herrian. Badaude bidegorri zati batzuk, baina gehiago egin beharko litzuzke udalak.

Arrasatek Elorregi edo San Prudentziora bitarteko zatia osatzen duen bidegorria izan zen lehena. Zerbait herritarrek erabiltzeko ohitura hartu zuten, nahiz eta landaretzaz beteta egon eta basati samarra zen. Gerora etorri ziren beste ibilbide batzuk, eta herrigune guztia alderik alde zeharkatzen duen Gernika Oinezkoen Zumardia, besteak beste. Azken honek, Gernika Oinezkoen Zumardiak sekulako aldaketa ekarri zuen: herritik irten gabe aukera aproposa eskaini die herritar askori. ■



Aldaigain inguruko bidegorri zatia.

EL PULMÓN DE ARRASATE

Estos últimos años ha mejorado notablemente la calidad de vida de los arrasatearras, ya que se cuenta con una amplia oferta de bidegorris que recorren la localidad de punta a punta y nos acercan a los pueblos limítrofes sin tener que convivir con los automóviles. Son muchos los tramos nuevos y entre ellos destaca, por ejemplo, Gernika Oinezkoen Zumardia, que recorre todo el casco urbano. Esta infraestructura ofrece posibilidades saludables y más proclives a la sostenibilidad, ya que facilita algunos usos y costumbres más favorables para los ciudadanos y los tiempos que corren.



Vanessa Sanchez

Telebista aurkezlea

“Itxaropena ematen duten istorioek hunkitzen naute batez ere”

Vanessa Sanchez arrasatearra da, nahiz eta umetan kanpora jo. Kazetaritza ikasi arren, Parisera jo zuen frantsesa ikasi eta dantza egitera. Han EITBko berriemaile lanetan hasi eta eskarmentu handia hartu zuen. Gerora, Teleberri-n aurkezle lanak egin zituen eta gaur egun Egun On Euskadi-n dihardu.

Arrasaten jaio zinen, baina txikitari alde egin zenuen. Zer nolako oroitzapenak dituzu?

7 urterekin joan nintzen Gasteizera, baina Arrasate nire etxea ere bada. Oroitzapen ugari ditut, haurtzaroko urteak garrantzitsuak direlako. Ikastolan oso une onak pasatu nituen. Gogoan daukat Gazteluondon jolas-orduan ijito batzuk etortzen zirela, eta flamenkoa dantzatzan ibiltzen ginela. Kultura arteko esperientzia, urte haietan, pentsa! (barre). Gogoan daukat orain Iturbide egoitza dagoen lekuan bi txalet zeudela. Bat amonaren lagun batena zen eta igerilekua zeukan; han pasatu nituen udak igeri egiten.

Gaur egun dantzaren alde ez zenuke borrokatuko?

Bolada bat izan zen; sasoi hartan dantza zen garrantzitsuena. Jarrai-

tzen dut tarteka dantza garaikidea egiten, baina orain aisialdia da.

Parisko berriemaile bizitza dantzaren parekoa zen, beti airean, hankak lurrean jarri gabe, abiadura bizian?

Bai, gaurkotasanak hala agintzen du, eta aurreikusitako ezinezkoa da. Adibidez, garbigailua ezin jarri ibiltzen nintzen, bat-batean nonbaitera arrapaladan joan behar nuelako. Ezinezkoa zen planak egitea eta ikuskizun askotako sarrerak oparitu edo galdu nituen, azken orduko kontuengatik.

Baina lan horrek asko eman zizun...

Bai, egunero sartzen nintzen unibertso oso desberdinetan, bestela ezagutuko ez nituenak; eta jende askorekin hunkitzen nintzen, itxaropena ematen zuten istorioekin



batez ere. Bitxiak izan ziren, baita ere, artista batzuei egindako elkarrizketak: adibidez, *Space Invaders*-i egindakoa; berak Paris osoan martzianitoak egiten ditu. Kaleko irudi horiek nire arreta piztu zuten eta berarengana heldu nintzen. Mozorroa jantzita elkarrizketatu behar izan nuen; oso surrealista.

“Kazetaritzak ematen digu aukera, bestela ezagutuko ez genituen unibertso oso desberdinetan sartzeko”

Aspertu zara platoko lanaz?

Ez, asko gustatzen zait aurkeztea. *Teleberri*-n hasi nintzenean oso urduri egoten nintzen, baina orain askoz gustorago nago. Gainera, programa freskoagoa eta azkaragoa da, zutik aurkezten dut... Tamaina hartu diodala uste dut.

Arrasate sarri bisitatzen duzu. Hobera aldatzen dabil herria?

Sarri etortzen naiz, eta askotan ibiltzen naiz amona gurpildun aulkian eramaten; irisgarritasun aldetik behintzat badago zer hobetu. Bestalde, gustuko dut erdigunea peatonalizatu izana. Baina, adibidez, gasolindegia delakoari ez diot zentzu handirik ikusten. Aurrekoan “Hau ez da leku bat” ikusi nuen bertan idatzita, eta arrazoia zuen. Badirudi kultura eskaintza handitzen dabilela; eta adibidez, orain dela gutxi Amaia Antzokian izan nintzen film bat ikusten eta harritu ninduen batutako jende kopuru handiak. ■

SIN PERDER LAS RAÍCES

Vanessa Sanchez nació y vivió en Arrasate hasta los 7 años cuando se fue a Gasteiz. Años más tarde, entró en nuestras casas como corresponsal de EITB en París, donde transcurrió unos años vertiginosos marcados por la actualidad más apremiante. Posteriormente, ha presentado Teleberri y actualmente es la cara y la voz de Egunon, Euskadi. Sigue viniendo a Arrasate, siempre que puede, dónde guarda un montón de recuerdos.

> BESAIDE MENDI ELKARTEA

Arrasatearrak mendira hurbiltzeko gailur iraunkorra

Mendizaletasuna sustatzea helburu daukan elkarte baterano honek 52 urte bete ditu dagoneko eta seguruenik Arrasaten bazkide gehien dituena da. Mendiarekin lotuta dauden hainbat kirol modalitate hartzen ditu bere baitan, beti ere kirol kutsua erabat alboratuta, eta nagusi zein gazteak ditu kide.

Iraganean Arrasaten Juventud Deportiva Mondragon izan zen kirol eragile ia bakarra; bere baitan Mendi Saila zegoen. Halako baten, baina, Toloñora egindako txango batean "konspirazio independentista" bat mamitu eta handik gutxira, 1957ko urriaren 27an, Besaide elkarte eratu zuten. Orduko helburuak eta oraingoak berberak dira: lehiaketarik gabeko mendizaletasuna sustatzea bere adarguztietan. Hasieratik elkarrekin oso harrera ona izan zuen eta jende ugari batu zen. Orduko protagonistek gogoan daukate garai hartan irteerak egiteko agintariei baimenak eskatu behar zizkietela. 1967an Monte Perdidorra jo zuten; eta 1972an, Alpeetara.

Hasierako batzarrak Centro Católico eta Café Urizarren egiten zituzten; gerora, 1975ean, gaur egun ezagutzen dugun egoitza, Garibaikoa, erosi zuten. Are gehiago, 70eko hamarkadan, bazkideei zuzendutako aldizkari bat egiten zuten.

1981ean Besaideren baitan, Eski talde bat sortu zuten; gerora, etorriko zen Mendi Eskiko beste bat ere. Eta horiei jarraitu zieten Espeleologia, Eskalada, Mendi Bizikleta eta bestelako taldeek ere. 80ko hamarkadan, Mendi Astea sortu zuten, gaur egun Mendi Hamabostaldia dena. Garai hartan elkarrekin indar handia zeukan eta 1986an Euskal Herriko mendi talde garrantzitsuenetakoa zen, 1.051 bazkiderekin.

Horrekin batera, mendizaleen segurtasuna eta ingurumenaren zaintze egokia bermatzeko ahaleginean, urtero hainbat ikastaro ematen dituzte. Aurten, esaterako, metereologia, GPSak eta mendi eski trabesiakoak egin dituzte; eta 2011rako mendi eskikoaz gain, elur-erraketatan ibiltzeko formazioa emango dute, besteak beste.

Belaunaldien gorabeherak

Elkarte oso indartsu eta ekimetsua da Besaide, eta barruan dituen talde guztien ekimenak batuta, dozenaka irteera antolatzen dituzte urtero. Horren atzean, baina, jende asko behar da lanean. 90eko hamarkada bukaeran, esaterako, egoera makala bizi izan zuen Besaidek, ardurak hartzeko jenderik ez zegoelako. Zorionez, baina, aurreko bateranoek heldu zioten elkarteari. 2007an, Besaideren 50. urteurrena ospatu ondoren, beste makalaldi bat izan zen. Orduan antolatzeko moduari buelta erdi eman zioten: zuzendaritza zeregin guztietaz arduratu beharrean, lan-talde bakoitzari nolabaiteko autonomia eman zioten, egunero-kotasunean bere kabuz jarduteko; horrek lana arindu zuen.

Edonork Besaidera jo nahi badu, Garibaian duten lokalean martitzenero eta eguaztenero 19:30etik 20:30era bitartean egiten dute harrera. Bertan bazkide edo federatu txartela egiteaz gain, aukera dago liburuak mailegatzeko edo mendi materiala alokatzeko. ■



Besaidek antolatutako lehenetariko irteera, 1968an Anetora.



Gure inguruak ezagutu ditzakegu Besaideri esker; irudian Deba-Zumaia txangoa.

”1986an Euskal Herriko mendi talde garrantzitsuenetakoa zen, 1.051 bazkiderekin”

POTENCIAR EL MONTAÑISMO SIN COMPETITIVIDAD

El club de montaña Besaide tiene ya más de medio siglo de vida desde que en octubre de 1957 un grupo de montañeros de la asociación Juventud Deportiva Mondragon decidieran desligarse de ésta y crear su propia asociación. Potenciar el montañismo e impulsar todas sus modalidades deportivas, siempre y cuando no haya competitividad, siguen siendo los referentes de Besaide, posiblemente la asociación arrasatearra que más socios tiene y más actividades realiza.



Ikei enpresak Arrasateko udalarentzako egindako Udal azokaren fotomuntaketa.

MERCADO MUNICIPAL

Renovarse o morir

El Consistorio ha ampliado el plazo de concesión de plazas del mercado municipal para otros cuatro años. Preocupada por ello, Ibai-Arte solicita al Ayuntamiento que ponga en marcha el proyecto de renovación del mercado escrito por la empresa Ikei a petición del ente público municipal. Ibai-Arte estima que las condiciones actuales de la plaza no favorecen su supervivencia.

Ibai-Arte lleva tiempo pidiendo al Ayuntamiento que dé una solución definitiva y adecuada al mercado municipal de la plaza de Abastos. El Consistorio encargó en 2008 la elaboración de un estudio sobre la remodelación del mercado a la empresa Ikei. Dicho trabajo fue realizado y entregado a responsables del ente público municipal en 2009.

Lejos de acometer la remodelación del mercado, el Ayuntamiento acaba de ampliar el plazo de concesión de las plazas para otros cuatro años

Lejos de ponerlo en práctica y acometer la remodelación del mercado, el Ayuntamiento acaba de ampliar el plazo de concesión de las plazas sitas en el mercado para otros cuatro años. El Consistorio ha argumentado su posición de no acometer por el momento la remodelación, haciendo hincapié en la poco boyante situación de las arcas municipales.

No obstante, responsables de Ibai-Arte opinan que la decisión de prolongar otros cuatro años el actual estado del mercado propiciará una "lenta eutanasia" del mercado y que el estudio de remodelación no se lleve nunca a cabo. Ya que, Ibai-Arte estima "preocupante" el estado actual del mercado, así como poco "atractivo" para los clientes.

Todo ello, según Ibai-Arte, hace que vaya mermando la "motivación" que puede acarrear emprender o mantener un negocio en dicho emplazamiento.

La asociación de comerciantes de Arrasate define el mercado municipal como "una de las peores instalaciones de mercado de toda Gipuzkoa, que se va a dejar morir", y proponen al ente municipal que tome como referencia otros servicios similares habilitados como La Brecha y San Martín en Donostia, Niessen en Errenteria, el mercado de Irun y el proyecto de remodelación existente en Eibar, entre otros.

Prioridad alta, según el PERCO
Asimismo, Ibai-Arte quiere destacar las conclusiones del recién elaborado PERCO



La remodelación prevista por la empresa Ikei visiona un mercado moderno, con amplia luminosidad, buena accesibilidad, abierto a diario y con diferentes zonas de venta

(Plan de Revitalización Comercial de Arrasate 2010) dónde se demanda al Ayuntamiento un esfuerzo para hacer más atractiva la oferta comercial local y se recalca la necesidad de crear un motor comercial urbano que concreta

en la misma renovación del mercado. El análisis del PERCO valora en una prioridad alta su ejecución y solicita al Ayuntamiento que la acometa, para así poder reactivar de manera satisfactoria el ámbito comercial.

La remodelación prevista por la empresa Ikei visiona un mercado moderno, con amplia luminosidad, buena accesibilidad, abierto a diario y con diferentes zonas de venta, que incluirían carnicería y charcutería, frutas y verduras, pescadería, congelados, panadería y degustación, plantas y flores, conservas, puestos de baserritarras y bar-cafetería. ■

UDAL AZOKA HIL ALA BIZIKO EGOERAN

Arrasateko Udalak Udal Azokan dauden saltokien kontzesioa beste lau urtez luzatzea erabaki du. Erabaki horrekin kezkatuta, Ibai-Artek, Arrasateko merkatarien elkarteak, udalari berriro eskatu dio azoka plazaren berritze proiektua eskutan hartu eta lan horiek egiteari ekin diezaiola. Merkatarien ustetan, azoka plazaren gaur egungo egoera kaskarrak ez du haren bizirautea bermatzen.

2008an Arrasateko Udalak Ikei enpresari azoka plazaren birmoldatzearen gaineko ikerketa egitea eskatu zion; 2009an lan hori bukatu eta udal ordezkariak jaso zuten. Udal ordezkariak azaldu izan dute momentuz lan hori egiteko dirurik ez dutela. PERCOren, hau da, 2010erako herriko merkataritza suspertzeko planaren ondorioetan, berriz, azpimarratu dute azoka plazaren birmoldatzea ezinbestekoa dela herriko merkataritza indartu nahi bada.



Taloea

> Txapan egiten den antzinako euskal jakia

Taloea euskal tradizioarekin zuzenean lotuta dagoen jakia da, luzaroen euskaldunon elikaduran oinarritzkoa izandakoa. Osagai oso gutxi behar dituena eta egiteko oso erraza dena. Jaki naturala da erabat eta, gainera, elikagai baliotsu eta energetikoak ditu. Seguruenik horregatik guztiagatik oso preziatua da.

Osagaiak:

- Arto-irina.
- Gatza.
- Ur beroa.



1523an heldu zen artoa Uztaritzera euskal marinelek ekarrita eta berehala zabaldu zen Euskal Herri osoan

XVII. eta XVIII. mendeetan artoa eta babarruna izan ziren euskaldunon oinarritzko jakiak

Santamasak ate joka ditugun honetan, Gabonak heldu aurreko jai hauetan, ezinezkoa da euskal tradizio eta usadioetan murgilduko garenetan hain zuzen ere, jakiei dagokienez, taloea presente ez izatea. Aurten ere seguruenik ilara luzeak egin beharko ditugu hain osagai xumeak dituen, baina hain gustukoa dugun jaki hori eskuratu ahal izateko.

Taloea historia luzea dauka gurean eta ezin da hori guztia erraz ahaztu. Gure arbasoak k.a. 300 urtearen inguruan hasi ziren nekazaritzan, erromatarrek erakutsita. Askoz beranduago, XV. mendean, biztanleen kopuruak gora egitearekin bat, nekazaritzaren produktuen gaineko eskariak nabarmen

egin zuen gora eta bestelako elikagaiak ereiten hasi ziren. Hala, 1523an artoa Uztaritzera (Iparralde) heldu zen euskal marinelek ekarrita eta berehala zabaldu zen Euskal Herri osoan.

XVII. mendean asko erabiltzen zen artoa eta euskaldunon arteko bizi maila asko hobetu zen. Izan ere, XVII. eta XVIII. mendeetan artoa eta babarruna izan ziren euskaldunon oinarritzko jakiak.

Nola egin artoa

Lehenik eta behin, irina jarri, gatzarekin, eromahaixan (egurrezko mahaia). Erdian hatzamarrarekin zulo txo bat egin. Poliki-poliki ur beroa botatzen joan, gero eta

gehiago, irina pilota handi bat bihurtu artean. Are eta finagoa, hobeto. Horrekin, masa edo oreka lortuko dugu.

Horren ostean, masa horren eskukada bat hartu eta talo-taulan jarri behar duzu. Azpialdean irina bota, pilota bertan itsatsi ez dadin. Esku-zabalarekin masa kolpatzen joan, fin-fin gelditu dadin. Gero, fin-fin dagoenean, espatula batekin jaso.

Horren ostean, plantxara bota (berau oso garbi egon behar da) eta bi aldetatik ondo egin. Kome-ni da masak suan gora egitea.

Falta den bakarra da talo barruan zuk nahi duzuna sartzea: txistorra, hirugiharra, gazta, txokolata... On egin!

> ZOZKETAK ETA SARIAK

Sariak ematen jarraitzen du Ibai-Arte Txartelak

Ibai-Arte Txartelaren erabiltzaileek azaroaren 15etik abenduaren 15era bitartean, astero egun batean, egindako erosketa guztiak ustekabeko deskontua izan zuten. Bestalde, Gabonetako otzarak zozketatzen jarraitzen dute. Hala, urtea amaitu bitartean erosketak egiterakoan, Ibai-Arte Txartela erabiltzen dutenen artean 50 otzara zozketatuko dituzte.

Datorren urteari begira, dinamika berdinarekin jarraituko dute, zozketak, sariak, deskontuak, opariak eta abar emanez.



Egundoko otzara zozketatuko dugu

Gabonetako kanpainaren barruan egundoko otzara bat zozketatuko du Ibai-Arte Santamas egunean. Abenduan zehar Ibai-Arteko bazkide diren saltokietan egindako erosketetan txartel bat jasoko duzue opari. Hala, abenduaren 22an zozketatuko da otzara. Bestalde, Ibai-Arteko saltokietan, urtarrilaren 5ean ospatuko den Umearen Loteriako Zozketarako txartelak banatzen gabiltza. Bezeroek, erosketak egiterakoan, 0,20 euro-tako partizipazioak jasoko dituzte.



> 2010EKO GABONAK

Gabonetako argiak

Azken urteotan Gabonetan bultzatutako dinamikarekin jarraituz, aurten ere Gabon giroa herrian zabaltzeko eta irudi korporatibo bateratua eskaintzeko helburuarekin, Gabonetako argiak jarriko ditugu Ibai-Arteko bazkideen saltoki guztietan.

> FORMACIÓN

Curso de técnicas de paquetería

Los días 22, 24 y 29 de noviembre y el 1 y 13 de diciembre se celebró el curso de técnicas de paquetería en la Mancomunidad del Alto Deba. El objetivo ha sido fijar el recuerdo en el cliente a través de la correspondiente aplicación de paquetería y para ello, además de conocer distintos tipos de envoltorios, se han trabajado distintos paquetes en función de los artículos.



ERABAKIGUNE ARTISTIKOA

Arte barrokoa eta rokokoaren elementuak batzen dituen harribitxia

Askotan kanpora jotzen dugu arte eta arkitektura lanak ikustera, baina gutxitan estimatzen dugu begi aurrean duguna. Adibidez, Arrasateko Udaletxea. 1756ko udaberrian hasi zituen lanok Martin Carrera arkitektoak eta 1766an inauguratu zuten. Arte adituen ustetan, kareharri harlanduzko fatxada eta barruko elementu asko oso interesgarriak dira.

Arrasateko kontzeju zaharra, egungo udaletxearen aurrekoa, Iturriotz kaleko 21. zenbakian kokatuta egon zen. Hain zuzen ere, herriko plaza handitzeko eta udaletxe zaharra egiteko, 1753ko abenduaren 16an kontzejuak egoera txarrean zeuden bi eraikin erosi zizkion Ponciana de Ollauriz andereari 8.800 errealean truke.

Udaletxea hareharriz egitea aurreikusi zuten, baina azkenean Galarrako kareharriarekin egin

zuten. Harmarria eta moldurak, berriz, Aguraingo harriarekin egin zituzten; eta eskailerako mailak eta barruko arku-multzoa Bergarako Gorosabelko harriarekin. Balkoiak eta barruko burdineria, berriz, Elorrioko Rafael Amezolak egin zituen. Behe-oina bost arkuk osatzen dute, udaletxearen erdian burdin sare zuzen baten bidez eginiko balkoi handi bat dago eta goraxeago, eraikinaren erdian, frantses rokoko estilo-ko armarria.

XVIII. mendeko barrokoa

Udaletxe hau eta pare-parean daukan San Juan Bataiatzailearen parrokia batuta, XVIII. mendeko barrokoko ohiko plaza osatzen dute. Baina eraikinaren barruan ere badira altxorrak: barruko eskalinita nagusiak pieza bakarreko eta 2,75 metroko zabalerako 19 maila dauzka. Gainera, burdinezko baranda eskailera kanporantz irteten da. Ezin ahaztu ezta udalbatza aretoa ere. 127,9 metro koadro ditu, sapaia

1928an berrizatu zuten, eta 63 eserlekuz osatutako borobil formako zizeilua dauka, Arrasateko Miguel Mateo de Areitio artistak bukatutako presidentziarako tronu nagusiarekin.

Bitxikeri moduan, presidentziako tronuaren atzean, gauregun erabili ezin daitekeen ate bat dago. Ate hori zabalik izan zuten 1782ko uztaileko egun batzuetan atzean egokitutako logela batzuekin komunikatzeko; bertan Artoiseko konteak, Frantziako Luis XVI.aren anaiak, egun batzuk pasa zituen.

Udaletxeako lanak
1756ko udaberrian hasi
zituzten eta 1766an
inauguratu zuten





XX. mende erdialdean kioskoa zegoen Herriko Plazan.


Ardo kontsumoarekin ordainduta

Udaletxeko lanak 1756ko udaberrian hasi zituzten eta 1766an inauguratu zuten. Eraikin berria egina zegoela ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu zituzten; eta sasoiko historialariek jasotakoaren arabera, besteak beste, plazan bertan zezenketak egin zituzten. Eraikinaren gastuak ere ez ziren nolabehar nahikoak izan: 210.891 erreal eta zortzi marabediko aurrekontua izan zuen. Hau

Udaletxea ordaintzeko Fernando VI erregeak ardoaren zerga igotzeko baimena eman zion udalbatzari

gutxi balitz, burdineriak eta balkoiek 24.259 erreal eta zortzi marabediko kostua izan zuten.

Hori guztia ordaintzeko, 1756ko urtarrilaren 12an Fernando VI erregeak udalbatzari zergak igotzeko baimena eman zion: herrian edandako ardo pitxer bakoitzeko zerga lau marabedi igo zuten. Hamar urte iraun behar zuen zerga, beste hamar urtetan luzatu zuten, eraikina ez ezik, udalbatzako zizeilua eta jarlekuak ere ordaintzeko. ■



Udaletxe barruko eskalinata garrantzia handia dauka arte adituentzat.

EL AYUNTAMIENTO, UNA JOYA AL ALCANCE

Hoy en día tendemos con facilidad a viajar fuera de nuestra tierra y visitar edificios de interés y obras de arte con interés. Paradójicamente, en innumerables ocasiones no conocemos y/o valoramos lo que tenemos enfrente de nuestros ojos. Es el caso de la casa consistorial de Arrasate, por poner un claro ejemplo. Construida por el arquitecto Martín Carrera entre 1756 y 1766, tiene gran importancia para muchos especialistas del arte arquitectónico. Destacan la fachada, el balcón principal y muchos elementos de su interior, como la escalinata y el salón de plenos, entre otros.

>Merkataritza

Merkataritzan aritzeko ikastaroa egin zuten azaroan



Gipuzkoako Bazkondeak, Foru Aldundiko eta Arrasateko Udaleko laguntzarekin, *Apal betetzailak* eta *kutzazainak merkataritzan* izeneko ikastaroa antolatu du aurten. Ikastaroa urriaren 18tik azaroaren 15era arte egin zuten Kulturateko Biteri gelan, eta 80 ordukoa izan zen.

Ikastaroa ikasketa maila berezirik gabeko langabeei prestakuntza profesionala eskaintzeko antolatu zuten, batez ere merkataritzako banaketa arloan eta alor horretan aritzen hasteko ezagupen teoriko eta praktikoak eman zituzten. Berau Gipuzkoako Foru Aldundiko *Sarbideak Prestakuntza* programaren bitartez antolatu zuten.

12 langabek esku hartu dute ikastaroan, seina emakumezko eta gizonezko; horietatik batzuk iraupen luzeko langabeak eta beste batzuk urte askotan industrian lan egindakoak, baina krisiaren eraginez lana galdu izan dutenak.

Formazio saio honen bitartez, parte-hartzaileek merkataritza establezimenduetan praktikaldiak egiteko aukera izango dute. Une honetan Gipuzkoako Bazkondea ari da praktikaldi horiek merkatariekin zehazten.

Antolatzaileak beste ikastaro bat egitea aurreikusten dabilza, egindakoak oso balorazio ona izan duelako eta interesatu asko kanpoan gelditu direlako. Hain zuzen ere, 46 eskari jaso zituzten, baina 12 pertsonentzat soilik egon da lekua.

>AZOKA

Azoka plazako saltokien lau urtetarako esleipena



Udalak Arrasateko azoka plazako saltokien esleipena lehiaketa publiko-ira ireki du. Esleipen berria lau urtetarako izango da, 2014ko abenduaren 31ra bitartekoa. Abenduaren 3an bukatu zen proposamenak aurkezteko epea, baina lerro hauek idazterako orduan ez zegoen jakiterik postuak hartzeko zenbat pertsona aurkeztu diren.

Udalak izaera desberdineko postuak jarri ditu lehiaketan: finkoak, bereziak, irabazirik gabeko elkarteak eta esne batu berriaren makina jartzekoa, hain zuzen ere. Finkoak dira pertsiana dutenak, gaur egun harategiak eta bestelakoak kokatuta daudenak. Halako 18 saltoki daude aukeran. Bereziak, berriz, asteazken eta ostiraletan jartzen dituztenak dira: horietan, galletak, pastak, olibak eta mota askotako jakiak saldu ohi dituzte. Halako 25 daude hartzeko moduan.

Bestalde, aurten, udalak izaera desberdineko beste bi saltoki mota jartzeko aukera ahalbideratu du: hain zuzen ere, irabazirik gabeko elkarte edo erakundeentzat lau postu batetik; eta esne batu berriaren makina jartzeko bat, bestetik. Lerro hauek idazterako orduan, udaleko ordezkariak ez zekiten bi modalitate hauetarako inork izena eman zuen edo ez. Dena dela, aurretik irabazirik gabeko elkarte batzuek udaletxera jo izan dute postuak jartzeko eskatuz.

Gabonak aurretik emango dute jakitera zer saltoki izango diren azoka plazan 2014ra bitartean.

Azaroaren 15etik Abenduaren 15era IBAIARTEren txartela erabiliz.
Del 15 de Noviembre al 15 de Diciembre utilizando la tarjeta IBAIARTE.

 Arrasateko Merkataritza eta Zerbitzu Elkarteak
Asociación de Comerciantes y Sector Servicios

AZAROĀ

USTEKABEKO
DESKONTUAK

DTO. SORPRESA
EN COMPRAS

GABONAK 2010 NAVIDADES

OTZARAK / LOTERIA
50 otzaren zozketa eta Gabonetako loteria

CESTAS / LOTERIA
Sorteo de 50 cestas y loteria de Navidad

ABENDUA



Abenduaren 1etik 30era IBAIARTEren txartela erabiliz
Del 1 al 30 de Diciembre utilizando la tarjeta IBAIARTE



IBAI-ARTE

Gabonetako 50 otzaren zozketa

Sorteo de 50 cestas de Navidad



**Kalitaterik onena
zerbitzurik onenarekin
zure eskura**



**La mejor calidad
con la mejor atención
a un paso**

Arrasateko Merkataritza eta Zerbitzuak

Comercios y Servicios de Arrasate

**ADM. LOTERIA Nº1
AGIRRE - ETXE
AITOR BELARDENDA
ALDEDI
ALMACENES ARRASATE S.L.
ALTUNA
AMETS
ANBOTO
ANES
ANGELA ESTETIKA ZENTRUA
ARANZABAL
ARANZABAL
ARRASATE BIDAIAK
ARRASATE OPTIKA
ARRASATE ZOO
ARREGI ARTE
ARTE LENIZ
ARTEAGA LANDETXEA
ARTZ
ASESORIA ARKUPE
AUTOSERVICIO FATIMA
AZPILIKUETA HARATEGIA
BARCELO VIAJES
BASOARTE
BASOARTE
BC
BEA
BED'S
BEINKE
BIOTIKA PARAFARMAZIA
BITXORI
BOUTIQUE ELENA
BUART
CAJA RURAL DE NAVARRA
CASA DE LABORES
CECIAGA
CENTRO CIEN
CHURRERIA LA EXQUISITA
CLINICA DENTAL ARREGI
DANATEK
DEBA PREST
DISTIRA
DORLE.M
DUBLIN IRISH PUB
EHUNE
EKOBAI
ELKORO BISUTERIA DENDA
ESTACION DE SERVICIO ARRASATE
EUSKADIKO KUTXA
EXPERT-ELKORO
EYA
EYA ALTZARIAK
FELI
FLASH**

**FORUM
FRUTERIA PEREZ
GAES
GALBURU
GARAGORRI
GARRAXI
GILI-GILI
GOIARA
GORKA HARATEGIA
HAURTXOA
HEMEN
HIKA
HILARION
HOTEL MONDRAGON
HOTEL SANTA ANA
IKATZ
IKER
IRALA BITXITEGIA
ITURRIOTZ
ITXASO
ITZALA
ITZIAR UGARTE OPTIKA
IZADI BELARDENDA I
IZADI BELARDENDA II
IZOKITEGI
JG IMPRESION DIGITAL
JIFH
JM BERRUETA
JOSLE
KAPIKUA
KILI-KOLO
KLOE
KORO ZABALETAK
LA CAIXA
LANDALUZE
LASAGABASTER
LAUTARO
LILURA
LIRAIN
LIZARRALDE KIROLAK
LORAMENDI KIROLAK
LORAMENDI KIROLAK
LORATEGI
LORE
LUKAS
LUKO
LUXURY & FASHION NEILA
M.L.
MABEL
MARKIEGI
MAYTE
MEHER
MENDI KIROLAK
MERCHE
MICROS INFORMATIKA**

**MIKEL ELORZA
MILAR ELKORO
MONTE
MUEBLES AMETS
MULTIOPTICAS
MURUAMENDIARAZ
N&N SOL
NO MAS VELLO
NOTHING WITHOUT
OIHAL
OIHANA
ONTZI DENDA
ORMAZABAL
OSKAR VITORIA BITXITEGIA
OSKARBI
OTAMENDI
PARLANCE
PELUQUERIA GORKA
PELUQUERIA RICHY
PELUQUERIA TOÑI
PELUQUERIA XARMA
PHILDAR
PORTALOI OPTIKA
PORTALOIKO KIOSKOA
PUBLIDENAK
RESUSTA-KARRIKIRI
SABURDI
SALEGI HARATEGIA
SALON HERMI
SIKOL
SUGAR
TAMAYO
TELAS PILAR
TIPI-TAPA
TOKI ON
TROKO
TTIKITTO
TXANPU
TXOKO 2
TXUNTXURUNBERDE
TXURI-BELTZ
UDALAITZ
UDESIGN SHOP
UME
URIARTE SPORT
URRATS
VIRGINIA
VODAFONE
ZABALETAK
ZONA 16
ZUBIA
ZUBIAGA
ZUK NAHI
ZUR LUR**

Ondo pasa jaietan!!!